Espediente zkia: 2023ZERL0002

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea **AZKOITIRA EAEtik KANPO OINARRIZKO HEZKUNTZARA ETORRITAKO IKASLEEI ESKOLA ORDUZ AT EUSKARAZKO ERREFORTZUA EMATEKO ZERBITZUAREN** kontratazioa da.

CPV Nomenklatura: 80000000-4 (Irakaskuntzako eta formazioko zerbitzuak)

Kontratuaren xedeak sorta bakarra du.

Ez da onartuko eskaintza alternatiboen proposamenik.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriak eta baldintza teknikoen agiriek kontratu-izaera izango dute eta esleipendunak, onespenaren adierazle gisa, sinatu egin beharko du kontratua izenpetzerakoan.

2. KONTRATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratu hau prestatzeko dokumentazioan justifikatu dira, 2017ko SPKLko 28. artikuluari jarraiki, helburu instituzionalak, kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura, kontratuaren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko eta kontuan hartutako faktore guztiak.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak **BI URTEKO** iraupena izango du, 2023ko urriaren 15etik zenbatzen hasita –egun indarrean dagoen kontratua 2023ko urriaren 14an amaituko da -. Sinatze hori zerbitzuak ematen hasi aurretik egingo da.

Kontratua **BI URTEZ luzatu** ahal izango da, urtez urte, gehienez lau urterako, horretarako beharrezkoa izango delarik Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29. artikuluan ezarritako egoerak gertatzea eta eskakizunak betetzea.

Luzapena kontratazio organoak erabakiko du eta kontratugilearentzat nahitaezkoa izango da, betiere kontratuaren iraupen epea bukatu baino bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

Nolanahi ere, luzapena berariaz adostu behar da.

Luzapenean ez dira ezertan aldatuko kontratuaren ezaugarriak, 2017ko SPKLren 203tik 207 artikuluetara ezarritakoaren arabera sar daitezkeen aldaketak alde batera utzi gabe.

Aurreko ataletan ezarritakoa gorabehera, kontratazio jardunbidean, kontratazio organoarentzat ustekabean izandako gorabeheren ondorioz, kontratistak eman beharreko prestazioen jarraipena bermatzeko, kontratuaren epea betetzean kontratu berria ez bada formalizatu, eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak egonez gero, kontratu hau luzatu ahal izango da kontratu berriaren exekuzioa hasi arte eta kasu guztietan gehienez bederatzi hilabeteko eperako, kontratuaren gainontzeko baldintzak aldatu gabe, betiere kontratu berriaren lizitazio iragarkia, kontratu honen amaiera data baino gutxienez hiru hilabeteko epean argitaratu bada.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Zerbitzuaren lizitazioaren oinarrizko urteko aurrekontua, **25.756,00€ (BEZetik salbuetsitako jarduera)** izango da. Ez da bermatuko zerbitzua ematea zenbateko horren truke, eta aleko prezio bidez esleituko da.

Lizitazio tipoa, gehieneko izaerarekin, ondokoa da:

- **Talde/ordukoa: 55,75€ (BEZetik salbuetsitako jarduera).**
- **Koordinazio/prestaketa ordukoa: 27,31€ (BEZetik salbuetsitako jarduera).**

Era berean, SPKL 101. artikuluaren arabera, kontratuaren balio zenbatetsia, iraupena kontuan hartuta, egonez gero, luzapenak barne eta BEZ gabe, 103.024,00€€koa da.

Eskainitako prezioan, kontratatutako prestazioak behar bezala betetzeko egin behar dituzten gastu guztiak barne hartuko dira, alegia, gastu orokorrak, finantzarioak, irabaziak, aseguruak eta laneko denbora, langileen joan-etorria zerbitzua eskaintzen den lekuraino, dietak, beren kargura dauden langile teknikoen ordainsarien hornidurak, tasak eta deskontu mota guztiak, bereziki BEZa; horiek ezingo dira jasanarazi, beraz, esleipen prezioaren partida bereizi gisa, eta Udalak ez du inolaz ere eratortzen den zenbatekoa baino handiagorik ordainduko.

Dagokion kasuan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga banakatuta agertu beharko da eskaintzetan, kontratuari aplikagarri zaion tipoa eta zenbatekoa bereizita, berau arautzen duen arautegiaren arabera.

Lizitatzaileen eskaintzak ez dira onartuko ondorengo kasuetan:

- Guztizko aurrekontua gainditzen badute.
- Plegu honek erreferentzia egiten dien lanen zati bat bakarrik barne hartzen badute.

5. KONTRATUAREN FINANTZAKETA

Aurrekontuan nahiko kreditu dago kontratua betetzetik Udalarentzat sortzen diren betebeharrei erantzuteko, 1.3300.226.335.00.03. aurrekontu partidan.

Era berean, plangintza honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldirako aurrekontuan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

6. PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratuko prezioa hilean behin egindako konturako pagamenduen bidez ordainduko da, faktura aurkeztuta eta prozedura honen arabera:

a) Esleipendunak **faktura formatu elektronikoan** aurkeztuko du, *Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu orokorraren* (FSPOe) bitartez (https://gfaegoitza.net/SarreraPuntua), Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak ezarritakoarekin bat eta zerbitzuen arabera banakatuta eta amaitutako hilabete bakoitzeko, eta zenbatekoa taldeetan eskainitako ordu kopurua eta koordinazio/prestaketan igarotako ordu kopuruaren arabera kalkulatuko da.

Unitate organikoen DIR3 kodeak:

Azkoitiko Udala:
Organo kudeatzailea: L01200179
Unitate tramitatzailea: L01200179
Kontabilitate bulegoa: L01200179

b) Aipatu fakturak udaleko dagokion Saileko Arduradunaren oniritzia jaso beharko du, eta ondoren, arloko zinegotzi delegatuak, hala egokituz gero, faktura funtsen Udal Kontu-hartzailetzara eramatea erabakiko du, hura ordaintzeko, Administrazioak

aurrekontua betetzeko ezarri duen araudian ezarritakoaren arabera.

Faktura onartu eta gero, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198.4 artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da. Hain zuzen, ordainagiriak 30 eguneko epean ordainduko ditu Administrazio kontratatzaileak, ordainagiria onartzen den egunetik zenbatzen hasita.

7. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 103.1 artikuluak xedaturikoarekin bat, kontratu honi ez dagokio prezioaren berrazterketarik.

8. BERMEAK

Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

Behin betiko bermea:

Kontratazio-organoak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 145. artikuluak xedaturikoarekin bat, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua luzatuko dio, eskainitako azken prezioaren %5eko behin betiko bermea – BEZa kanpo - eratu duela **– 2.575,60€** - egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezan Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 107.3 artikuluak xedaturikoarekin bat, gehienez ere 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontuan hartuta kontratu honen hasierako iraupena 2 urtekoa dela eta BEZa ez dagoela barne.

Bermeak Udal-diruzaintzan jarri beharko dira eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluak xedaturiko eran aurkeztu ahal izango dira:

a) Dirutan edo Zor Publikoko balioetan, kasu bakoitzean, Lege hori garatzen duten arauetan ezarritako baldintzen arabera. Eskudirua eta idazpena duten balioen ibilgetze-ziurtagiriak erakunde hauetakoren batean gordailutu behar dira: Gordailuen Kutxa Nagusian, edo Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren ordezkaritzetako sukurtsaletan, edo kontratugile izan eta ondorioen onuradun diren autonomia-erkidegoetako edo toki-entitateetako haren pareko kutxa edo establezimendu publikoetan, Lege hori garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan.

b) Abal bidez. Abal hori aipatutako Legea garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan mailegatu beharko dute Espainian jarduteko baimena duten bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek edo elkarren bermerako sozietateek. Abala aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetako batean gordailatu behar da.

c) Kauzio-aseguruaren kontratu bidez. Kontratu hori aipatutako Legea garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan egin beharko du arlo horretan jarduteko baimena duen entitate aseguratzaile batek. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetako batean aurkeztu behar da.

Bermea dirutan jartzen bada, horri dagokion zenbatekoa Kutxabank-eko 2095/5028/71/1060024527 zenbakiko kontu korrontean sartuko da, eta transferentzia-agiriaren kopia bat eramango da Udaleko Diruzaintzara. Horrekin batera, kontu korronte baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermearen itzulketa egiteko.

Esleipendunak, bermearen gain, honako hauek hartuko ditu, SPKL-ren 110. artikuluaren arabera:

a) SPKLren 153. artikuluak xedaturikoaren arabera, kontratua epe barruan formalizatzeko betebeharraz.

b) SPKLren 192. artikuluaren arabera kontratistari ezarritako zigorrak.

c) Kontratuan adierazitako zerbitzuak ondo betetzea; kontratazio organoak onarturiko kontratistak eskainitako hobekuntzak barne, kontratistak bere betebeharrak betetzean berandutzearen ondorioz Administrazioari sortutako gastuak; kontratua suntsiaraztea bidezkoa ez bada, hura gauzatzeagatik edo ez betetzeagatik Administrazioari sortutako kalteak eta galerak.

d) Kontratua suntsiarazten denean, erabaki daitekeen konfiskazioa, hartan edo lege honetan adierazitakoaren arabera.

e) Gainera, behin betiko bermeak, kontratuan ezarririko berme-epealdian, eskainitako zerbitzuetan akatsik ez egoteaz erantzungo du.

Kontratua aldatzearen ondorioz, haren balioak aldaketak izaten baditu, bermea berriz egokitu egingo da. Hori egiteko hamabost eguneko epea egongo da, kontratua aldatzeko ebazpenaren jakinarazpena esleipendunari egiten zaion egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 109.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da bermea, osorik edo, behar denean, zati batean; bermearen epea amaitu eta esleipendunak kontratuko betebehar guztiak bete ondoren itzuliko da bermea.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena gauzatzeko **jardunbide irekia** erabiliko da, SPKLren 156. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki.

Kontratuaren esleipena, kontratuaren xedearekin lotura duten hainbat irizpide aintzat hartuta egingo da, kalitate-prezio onenaren arabera, SPKLren 145. artikuluak eta baldintza agiri honen 16. klausulan ezarritakoari jarraituz.

Espedientearen izapidetzea **ohikoa** izango da.

10. KONTRATUGILEAREN PROFILA

2017ko SPKLko 63. artikuluari jarraikiz, toki-erakundearen kontratuzko jarduerari buruzko informazioa gardena eta eskuragarria izan dadin ziurtatze aldera, kontratatzailearen profilaren (www.azkoitia.eus) bitartez haren kontratuzko jarduerari buruzko informazioa emango da, kontratu honi dagozkion iragarkiak, agiri hau eta agiri teknikoa barne.

Profilak informazio hau du: toki-erakundeko kontratazio-organoarekin harremanetan aritzeko behar den informazio orokorra, topaguneak, telefono- eta fax-zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, iragarkiak eta baldintzen agiriak eta egiten dituen kontratuei buruzko informazio berezia.

11. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona natural edo juridikoek, espainiar estatukoek edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratatzeko inolako debekurik ez badute, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badituzte.

Era berean, proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte SPKLren 69. artikuluan xedatutakoaren arabera aldi baterako enpresa batasuna eratzen duten enpresek.

Kontratistaren jarduteko gaitasuna, kontratatzeko inolako debekurik ez duela eta horren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala plegu honetako 12. eta 17. Baldintzetan zehazturiko eran egiaztatu beharko dira.

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bidez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.

Eskaintza aurkeztu ahal izateko baldintza izango da, era berean, lizitatzaileak garatuko duen xedeak edo jarduerak harreman zuzena izatea kontratuaren xedearekin, dagozkion

bere estatutuetatik edo fundazio arauetatik eratortzen denaren arabera eta behar bezala frogatuta. Halaber, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren elementu materialak eta langileak dituen antolaketa bat izan beharko du.

12. PROPOSAMENAK, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO EPEA

Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Idazkaritza Departamenduan, Kontratazio Unitatean, aztertu ahal izango da, bulego orduetan, lanegunetan (larunbatetan izan ezik), kontratugilearen profilean lizitazio-iragarkia argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Proposamenen aurkezpena bitarteko elektronikoak erabilita soilik egingo da, Kontratugilearen profilean argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epearen barruan - **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO epean, lizitazio iragarkia Kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.** Hori larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunean amaituko da - , 2017 SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzekin bat etorriz.

Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta bitartekoak arbitratuko dira izaera hori bermatzeko, proposamenak irekitzen diren unera arte.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko informazio eta zehaztasun teknikoak, baita dataren zifratze eta balidatzea ere, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan sartuta daude (www.contratación.euskadi.eus).

Zerbitzu horiek erabiltzeak ondokoa esan nahi du:

1.- Lizitatzaileak modu telematikoan prestatu eta aurkeztu behar dituela bere eskaintzak.

2.- Sistemak egingo duela eskaintzen zaintza elektronikoa.

3.- Plataformaren bitartez irekiko eta ebaluatuko dela dokumentazioa.

Eskaintzak bitarteko elektronikoz bidaltzea bi fasetan egin ahalko da: lehenik, eskaintzaren aztarna elektronikoa igorriko da – hori jasotzearekin egintzat joko da aurkezpena ondorio guztietarako -, eta, ondoren, eskaintza bera 24 orduko epean, gehienez ere. Bigarren igorpen hori ez bada adierazitako epean egiten, eskaintza erretiratutzat joko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu-multzo bat da zeinak eskaintzaren edukiarekin argi eta garbi lotzea bermatzen duen, eta eskaintzaren edukian egon daitezkeen aldaketak detektatzea ahalbidetzen, hala haren osotasuna bermatuz. Espedientean txertatu beharreko dokumentuen kopia elektronikoek bete egin beharko dute ondorio

horretarako indarrean dagoen administrazio prozedura erkidearen alorreko legedia, bertan ezarritako guztiekin.

AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Erabiltzaileen Laguntza Zentroa

945 016 298 telefono zenbakia

Interneteko helbidea: http://www.contratacion.euskadi.eus

Posta elektronikoko helbidea: laguntzakpe@euskadi.eus (orriko lehiaketa elektroniko arloan)

Lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino hamabi egun lehenago egin badira eskariak.

Esleipendun bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu dezake. Ezin izango da aldi-baterako enpresa elkartean proposamenik egin aurretik beste bat bakarka egin bada. Baldintza hori hausten duen enpresariari atzera botako zaizkio automatikoki aurkeztu dituen proposamen guztiak.

Proposamen bat aurkezteak enpresariak agiri honetako klausulak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela esan nahi du.

PROPOSAMENEN EDUKIA:

Lizitatzaileek **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO (A, B eta C)** aurkeztu beharko dituzte:

Artxibo bakoitzean, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta noren izenean sinatzen duen adieraziko dira, eta hiru artxiboek sinatuta egon beharko dute.

— «A» ARTXIBO ELEKTRONIKOA: Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena
— «B» ARTXIBO ELEKTRONIKOA: Balio judizioen bidez balioetsiko diren irizpideen proposamena
— «C» ARTXIBO ELEKTRONIKOA: Automatikoki balioetsiko diren irizpideen proposamenak

«A» ARTXIBO ELEKTRONIKOA
KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1.- Bere izenean edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean aurkeztu, proposamena duen pertsonaren **NAN.**

2.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikuluan ezartzen duenez, lizitatzaileek **"Europa Batasuneko kontratazioko agiri bakarra"** izeneko agiria aurkeztu beharko dute lizitazio prozeduran parte hartzeko baldintzak bete izanaren aldez aurreko froga gisa, baldintza horiek betetzeari buruzko egiaztagirien ordez; hain zuzen ere, adierazpen formala eta eguneratua aurkeztuko du enpresa interesatuak, non lizitatzaileak ondorengoa adierazten duen:

1.- Enpresa baliozkotasunez eratuta dagoela eta, bere helburu sozialaren arabera, aurkez daitekeela lizitaziora, eta aitorpena sinatzen duenak baduela proposamena aurkezteko eta haren behar besteko ordezkaritza.

2.- Baduela dagokion sailkapena, kasua bada, edo betetzen dituela jarduteko eskatzen diren finantza eta ekonomia kaudimenari eta gaitasun tekniko edo profesionalari dagozkien baldintzak, Europako kontratazio dokumentu bakarrean normalizatuta dagoen formularioaren arabera, pleguak finkatzen dituen baldintzetan.

3.- Kontratua egin ahal izateko debekurik ez duela egiaztatzen, ezta hedaduraz Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz ere.

4.- Jakinarazpenak egiteko helbide elektroniko bat izendatzea.

Baldin eta enpresariak beste enpresen kaudimen eta baliabideetara jotzen badu, horietako bakoitzak ere Europako kontratazio dokumentu bakarra aurkeztu beharko du.

Baldin eta enpresari batzuek aldi baterako enpresa elkartea antolatzera jotzen badute, parte hartzen duen enpresa bakoitzeko Europako kontratazio dokumentu bakarra aurkeztu beharko da.

Gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatuko den kasuetan, jurisdikzioaren mende egoteari buruzko deklarazioa aurkeztu beharko dute.

EKAB-en inprimaki normalizatua kontratazio profilean egongo da eskuragarri.

Kontratazio Administratiboko Aholku Batzordeak, 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenaren bidez (2016ko apirilaren 8ko EAO), hainbat jarraibide xedatzen ditu EKAB inprimakia betetzeko.

Behar bezala bete ondoren, dokumentu hori inprimatu, sinatu eta A artxibo elektronikoan sartu behar da.

Prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-organoak edota kontratazio-

mahaiak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazio zurigarri osoa edo zati bat aurkez dezaten, kontratuaren esleipenduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua esleitu aurreko edozein unetan.

Kontratatzeko gaitasunaren, kaudimenaren eta debekurik ezaren zirkunstantziak, proposamenak aurkezteko azken egunera arte mantendu behar dira eta kontratua perfekzionatzeko unera arte.

3.- Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzeko konpromisoa jasotzen duen dokumentu edo agiria; proposamena enpresa-elkarte batek egiten badu, elkarte horretan sartuta lehiatu nahi duten enpresaburuek hura osatzen dutenen izenak eta beste gorabeherak adieraziko dituzte, hala nola bakoitzak zer-nolako parte-hartzea daukan hartan eta guztiek beren gain hartzen dutela aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa, esleipena egokitzen bazaie. Era berean, enpresek elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar bat aukeratu beharko dute, askietsitako ahalordez hornitua, kontratua iraungi bitartean hartatik eratortzen diren eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko, inola ere baztertu gabe kobrantza eta pagamendu handiak egiteko ahalorde mankomunatuak emateko aukera.

«B» ARTXIBO ELEKTRONIKOA
BALIO JUDIZIOEN BIDEZ BALIOETSIKO DIREN IRIZPIDEEN INGURUKO PROPOSAMENA

Plegu honetako 16. Klausulan adierazitako balio-judizioen menpe dauden esleipen-irizpideak, kontratistak balioesteko aurkezten dituenak, betetzen direla justifikatu behar da, hori ziurtatzen dituen agiriak, zerbitzuaren prestazioaren inguruko txostena eta egingo dituzten lanen azalpen-memoria, hori guztia kontratuaren xede den zerbitzuaren prestazioa definitzen duten Preskripzio Teknikoen Orriaren klausuletan ezarritakoarekin bat etorri beharko delarik eta Preskripzio Teknikoen Orriaren 8. Klausulak xedaturikoarekin bat, lizitatzaileek aipatu proposamena ondoko eran aurkeztu beharko dute:

Azkoitia eta bertako baliabideei lotutako zerbitzuari buruzko proposamen teknikoa, ahalik eta zehatzena, **gehienez 10 orriko DINA 4 alde bakarretik Calibri 12 letra estiloan idatzita** ondorengo edukiarekin:

- Helburuak eta lan metodologia.
- Adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak.
- Zerbitzuaren barne antolaketa eta garapena. Lantaldeko ardurak, funtzioak, jarduerak eta lanak.
- Koordinazioa, barnekoa (lantaldekoa) eta kanpokoa (gurasoekin, ikastetxeekin eta udaleko Euskara zerbitzuarekin)
- Komunikazioa.
- Ebaluazioa.

Kasu batean ere ez dira sartu behar artxibo elektroniko honetan proposamen ekonomikoa edo era automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagokien beste edozein datu eta C artxibo elektronikoan sartu behar diren datuak.

Datu horietako edozein sartuz gero B artxibo elektronikoan, lizitatzailea prozedura honetatik kanpo gelditu ahal izango da, eta ez da C artxibo elektronikoa irekiko.

«C» ARTXIBO ELEKTRONIKOA
AUTOMATIKOKI BALIOETSIKO DIREN IRIZPIDEEN PROPOSAMENAK

1.- Eredu honen araberako proposamen ekonomikoa:

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

..... jaunak/andreak, bizilekua ..... (kalea eta zk.) ..... (posta-kodea) jakinarazpenetarako helbidea duenak, NAN zk. ....., telefono zk. ..... eta helbide elektronikoa ..... dituenak, gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren jabetza osoa izanik, nire izenean (edo honen ordezkari gisa..... ....., ...posta-kodea, telefono zk. ..... eta NAN edo IFK ..... —pertsona fisikoa edo pertsona juridikoa den kontuan izanik—), ***"AZKOITIRA EAEtik KANPO OINARRIZKO HEZKUNTZARA DATOZEN IKASLEEI ESKOLA ORDUZ AT EUSKARAZKO ERREFORTZUA EMATEKO ZERBITZUA****", jardunbide ireki bidez eta kalitate prezio hoberenaren eskaintza, esleitzeko irizpide batzuk erabiliz, esleitzeko antolatutako lizitazioaren deialdiaren berri izanik eta argitaratutako baldintza-agiriak ezagutzen ditudala*

ADIERAZTEN DUT:

1.- Ezagutzen ditudala Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria eta espedientean dauden gainerako dokumentuak, eta espreski oso-osorik nire gain hartzen eta onartzen ditudala.

2.- Nire erantzukizunpean aitortzen dudala, enpresa lizitatzaileak kontratuaren xedea betetzeko gaitasun juridikoa eta behar adinako bitartekoak dituela, eta ez dagoela sartuta indarrean dagoen legedian adierazitako bateraezintasun edo debeku kasuetako bakar batean ere.

3.- Lan, zerga eta Gizarte Segurantzaren alorretan legez edo araudiz ezarritakoa betetzera behartzen dudala nire burua.

4.- Esleipendun suertatzen banaiz, aipatu lanak burutuko ditudala beti onartutako baldintza agirian xedatutako eskakizun eta baldintzak betez, baita espedientean ezarritako gainerako baldintza teknikoak ere.

5.- Kontratua ondorengo banakako prezio hauetan gauzatzeko konpromisoa hartzen dudala:

Kontzeptua	***Zenbatekoa***
Talde/Orduko	
Koordinazio/ prestaketa orduko	

Hori guztia dela eta, lizitazioan parte hartzea eskatzen dut.

Azkoitian, 2023ko ……(a)ren……(e)an.

Lizitatzailearen sinadura

Sinadura: ».

2.- Automatikoki ebaluatu beharreko beste proposamenak:

2.1.- Zerbitzua emango duten langileek dituzten aisialdiko begirale tituluak.

2.2.- Zerbitzua emango duten langileek dituzten hizkuntza dinamizazio ikastaroen tituluak.

2.3.- Enpresa lizitatzailea Bikain ziurtagiriaren edota Bai Euskarari ziurtagiriaren jabe izatea.

Kasu batean ere ez dira sartu behar artxibo elektroniko honetan memoria teknikoa, lan programa edo esleipen-irizpideei dagozkien beste edozein datu, horien balorazioa balio irizpen baten menpe baitago, eta horiek B artxibo elektronikoan sartu behar baitira.

Datu horietako edozein sartuz gero C artxibo elektronikoan, ez dira balioetsiko agiriok; beraz, era automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagozkien puntuak baino ez zaizkio batuko.

13. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio Mahaia honela eratuko da:

EPAIMAHAIBURUA:
Azkoitiko udaleko Alkate-Lehendakaria, edo bere ordezko zinegotzia.

BOKALAK:

- Udal Idazkaria edo bere ordezko funtzionarioa.

- Udal Kontu-hartzailea edo bere ordezkoa funtzionarioa

- Kontratazio arloko AOT edo bere ordezko funtzionarioa

IDAZKARIA:
Kontratazio arloko A.O.T. edo horren ordezko funtzionarioa.

Halaber, udal teknikari guztiek parte hartu ahal izango dute Kontratazio Mahaian, baldin eta Mahaiak, aholkularitza lanak egiteko, horien parte hartzea eskatzen bada.

Udal talde politikoetako bozeramaileak gonbidatu gisa, ahotsarekin eta botorik gabe, Kontratazio Mahaiko bilkuretan parte hartzeko aukera izango dute.

Kontratazio Mahaiaren osaketa kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio-organoak hartzen dituen ebazpenak exekutiboak izango dira, dagokion Auzi Organoaren aurrean kontratistak duen aurkaratzeko eskubidearen kalterik gabe.

14. AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea iragan ondoren, Kontratazio-mahaiak lizitatzaileek A artxibo elektronikoan aurkeztutako dokumentazio orokorra kalifikatuko du, publikoa izango ez den bilkuran, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 141. artikuluan adierazten dena jarraiki.

Horretarako, Araudiaren 22. Artikuluak xedaturikoarekin bat, lizitatzaileen kontratatzeko gaitasunari eta kaudimenari buruzko argibideak edota agiri osagarriak eskatu ahal izango dira. Agiri horiek bost egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira. Mahaiak helbide elektroniko bidez emango die argibideen edota informazio osagarriaren eskaeraren berri.

B artxibo elektronikoa ireki aurretik, Mahaiak ondokoa egiaztatuko du: lizitatzaileek A artxibo elektronikoan aurkeztu dituzten dokumentuak behar den moduan izenpetuta daudela eta formaren ikuspegitik eta ikuspegi materialetik ere, legez eta araudiz aplikagarri diren arauek xedaturikoa ere betetzen dutela.

Kontratazio Mahaiak aurkeztutako agirietan hutsegite materialak daudela ikusten badu, posta elektronikoa erabiliz jakinaraziko die interesatuei, eta 3 lanegun baino gehiagokoa izango ez den epea emango du, lizitatzaileek akatsak zuzen ditzaten. Dokumentazioak zuzendu ezin daitezkeen akats nabarmenak edo hutsegite materialak badituzte, proposamena baztertu egingo da.

Kontratazio-mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikuluak aipatzen duten dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, egokituz gero, aurkeztutako dokumentazioan atzemandako akatsak edo hutsegiteak zuzendu ondoren, HAKLAOko 11. artikuluak aipatzen dituen hautapen-irizpideak betetzen dituzten enpresak zein diren zehaztuko ditu, eta berariaz esango du lizitazioan zein onartu diren, eta zein eta baztertzearen arrazoiak.

Jarraian, ahal bada egintza berean, Kontratazio-mahaiak “B” artxibo elektronikoak irekiko ditu eta horiek balioetsiko dituen teknikariari igorriko zaizkio. Horrek balorazio-txostena, era automatikoan ebaluatzekoak diren proposamenak jendaurrean ireki aurretik bidali beharko du.

Azkenean, Kontratazio-mahaiak Kontratugilearen Profilean eta onartutako lizitatzaileei bidalitako komunikazioan adierazitako leku, egun eta orduan "C" artxibo elektronikoa irekiko du jendaurrean; hau da, era automatikoan balioestekoak diren irizpideen inguruko dokumentazioa daukana. Proposamen ekonomikoak irakurri ondoren, mahaiak haien puntuazioa egingo du, plegu honetan esleitzeko adierazitako irizpidearen bidez.

Proposamenak balioestean, plegu honetako 16. Klausulan azaldutako esleipen-irizpideak kontuan hartuko dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145. eta 146. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Txosten teknikoak ikusita, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari esleitzeko proposamena luzatuko dio. Esleitze-irizpideak aurkeztu diren proposamenetan aplikatzearen ondorioz lortutako emaitza, akta, esleipen-proposamenarekin batera eskuratutako dokumentazioa eta bidezkotzat jotako oharpenak helaraziko dizkio Kontratazio-mahaiak Kontratazio-organoari.

Proposamen hauek ez dira onartuko:

- Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo arau-hausteak direla-eta Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak.
- Aztertutako eta onartutako agiriekin loturarik ez dutenak.
- Gehieneko lizitazio-prezioa gainditzen dutenak.
- Eskaintza ekonomikoan ageriko akatsa dutenak.

- Erabakitako eredua funtsean aldatzen dutenak.
- BEZ egokia aplikatzen ez duten eskaintzak, beste tasa bat aplikatzen dutenak eta kontratuaren xedea betetzeko zerbitzu guztiak barruan hartzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.
- Datarik ez dutenak, hala nola enpresaren lege-ordezkariaren ahalordea duen pertsonaren sinadurarik ez dutenak, salbu eta, ordezkaria edo pertsona ahalordedun bat duten eskaintzen kasuan, ekitaldia hasi eta berehala sinatzen bada, betiere hori edozein eskaintza ekonomiko irakurri ondoren eginez gero.

Kontratazio-organoak bi erabaki hauetako bat hartzeko ahalmena izango du: kontratua kalitate-prezio onenaren arabera esleitzea, plegu honetako esleipen-irizpideak aplikatuz eta haren balio ekonomikoari ezinbestean kasurik egin behar izan gabe; edo hutsik, esleipenik gabe utz dezake lizitazioa, betiere erabakia esleipenerako irizpide horien arabera arrazoituta.

Esleipen-proposamenak ez du administrazioarekiko inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde. Hala ere, kontratazio-organoak ez badu esleitzen kontratua egindako proposamenaren arabera, erabakia arrazoitu beharko du.

15. ANORMALKI BAXUAK DIREN PROPOSAMENAK

Ez da bidezkoa izango esleipena egitea eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari, baldin eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan jasotakoaren arabera, kontratazio-organoak ondo oinarritutako arrazoiak baditu pentsatzeko proposamena ezingo dela bete, ohiz kanpoko balio baxuak jasotzen dituelako.

Kontratu honetan anormaltasun-presuntzioko beherapenik dagoen ikusteko, Administrazio Publikoetako Kontratuen legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluak ezartzen dituen irizpideak erabiliko dira.

Kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak anormaltasun presuntzioan egindako eskaintza bat edo batzuk identifikatuko balitu, haiek aurkeztutako lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko dizkie, betiere behar besteko epea emanda, arrazoiez eta xehetasunez justifikatzeko eta banakatzeko prezioen edo kostuen edo beste edozein parametroren maila baxua, oinarri izan direnak eskaintzaren ezohikotasuna definitzerakoan, horretarako beharrezkoak diren informazioa eta agiriak aurkeztearen bidez.

Kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak lizitatzaileari zuzenduko dion informazio eskaera argi eta garbi adierazi beharko da, lizitatzailea edo lizitatzaileak eskaintzaren bideragarritasuna osoki eta behar bezala justifikatzeko egoeran izan daitezen.

Zehatz esanda, kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak justifikagarriak eska diezazkieke lizitatzaile horiei eskaintzaren baldintzei buruz, berorren prezio edo kostuen maila baxua zehazteko modukoak badira eta, bereziki, honako balore hauei dagokienean:

a) Fabrikatzeko prozeduraren, emandako zerbitzuen edo eraikuntzako metodoaren bidez zenbat aurrezten den.

b) Zer soluzio tekniko hautatu dituen eta produktuen hornikuntza egiteko, zerbitzuak emateko edo lanak egiteko zein baldintza dituen bereziki aldekoak.

c) Zein den produktuen hornikuntza egiteko, zerbitzuak emateko edo lanak egiteko proposatutako irtenbideen berritasuna eta originaltasuna.

d) Ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikagarriak diren betebeharrak eta azpikontratazioari dagozkionak errespetatzen direla, ez direlarik justifikagarriak merkatukoak baino prezio baxuagoak edo 201 artikuluak xedatutakoa urratzen dutenak.

e) Edo Estatuaren aldetik laguntza jasotzeko aukera izan duen.

Nolanahi ere, kontratazio organoek baztertu egingo dituzte eskaintzak, baldin eta frogatzen bada ohikoak baino baxuagoak direla, azpikontratazioari buruzko arauak urratzen dituztelako edo ez dituztelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikagarriak diren betebeharrak, nazio nahiz nazioarte mailan, indarrean diren sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 201 artikuluan ezarritakoa aplikatzeari buruz.

Nolanahi ere, lizitatzaileak proposaturiko prezioen edo kostuen maila baxuaren justifikagarriak ez dituela behar bezala azaltzen ulertuko da, osatu gabea denean edo ikuspegi tekniko, juridiko eta ekonomikotik hipotesietan edo praktika desegokietan oinarritzen direnean.

Lizitatzaileak Estatutik laguntza lortu duela eta, eskaintza bat ohikoa baino baxuagoa dela frogatzen den kasuetan, proposamena arrazoi bakar honengatik soilik baztertu ahal izango da, baldin eta hark ezin egiazta badezake laguntza publikoen alorrean erkidegoko xedapenak urratu gabe eman dela delako laguntza. Arrazoi horregatik eskaintza bat baztertzen duen kontratazio organoak horren berri eman beharko dio Europar Batzordeari, esleipen prozedura erregulazio harmonizatuko kontratu bati buruzkoa denean.

Kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak lizitatzaileak emandako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du epean, eta kontratazio mahaia den kasuan, kontratazio organoari aurkeztuko dio dagokion onarpen edo baztertze proposamena, behar bezala arrazoituta. Inola ere ez da erabakiko eskaintza baten

onarpena kontratazio mahaiaren proposamena zentzu horretan behar bezala arrazoituta ez badago.

Kontratazio organoak, lizitatzaileak egindako justifikazioa eta laugarren atalean aipatutako txostenak aintzat hartuta, lizitatzaileak proposatutako prezioen eta kostuen maila baxua behar bezala ez duela azaltzen irizten badu eta, ondorioz, ezohiko balioak sartzen direlako eskaintza ezin bada gauzatu, sailkapenetik kanpo utziko du eta eskaintzarik onenaren alde erabakiko du esleipena, SPKLaren 150 artikuluaren 1. atalean adierazitakoaren arabera sailkapen hurrenkera kontuan hartuta. Orokorrean, ustez ezohikotasunezko diren eskaintzak baztertu egingo dira, ikuspegi tekniko, juridiko eta ekonomikotik hipotesietan edo praktika desegokietan oinarrituak badira.

Ezohikotasun presuntzioan sarturik egondako enpresa bat kontratuaren esleipendun gertatuko balitz, kontratazio organoak baliabide egokiak ezarriko ditu berau gauzatzerakoan jarraipen zehatza egiteko, kontratua zuzen betetzen dela bermatzea xedetzat harturik, zerbitzuen, obren edo horniketen kalitatean murrizketarik gertatu gabe.

16. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Hona hemen kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren proposamenak balioesteko irizpideak, garrantzia handiena duenetik txikiena duenera zerrendatuta, eta esleitzen zaien haztapenaren arabera:

1.- ERA AUTOMATIKOAN BALIOESTEKO IRIZPIDEAK (C artxibo elektronikoan sartu beharrekoak): gehienez 52 puntu

1.1 Eskaintza ekonomikoa. Kontratu osoari dagokion eskainitako prezioa: gehienez 49 puntu

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoei dagokien puntuazioaren kalkulua eskaintza horietan oinarrituta egingo da, interpolazio lineala aplikatuz P1 puntuak (beherapen maximoa, puntuazio maximoa) eta P2 puntuak (0ko beherapena, puntuazio minimoa) definitzen duten zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barnean. P1 eta P2 puntuak hauek dira:

P1 - Eskaintza merkeenari dagokiona (beherapen maximoa), berari emango zaion puntuazioarekin, Pmax puntuazio maximoarekin (49 puntu) alegia.

P2 - Lizitazio neurriari dagokiona, berari emango zaion puntuazioarekin, puntuazio minimoarekin, hau da, formula honen bitartez kalkulatuko den puntuazioarekin:

Pmin = Pmax x (1-Bmáx). (Bmax = Beherapen maximoa)

Beherapena (B) honela kalkulatuko da: lizitazio neurria ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio neurria. Aipatu den zuzena definitzeko, onartutako oinarrizko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

1.2 Automatikoki ebaluatu daitezkeen beste proposamenak – langilegoaren ikastaroak eta enpresaren ziurtagiriak –: gehienez 3 puntu

Irizpidea	**3 puntu gehienez**
2.1. Langileek aisialdiko begirale titulua izatea.	1
2.2. Langileek hizkuntza dinamizazio ikastaroak izatea.	1
2.3. Enpresak Bikain ziurtagiria edota Bai Euskarari ziurtagiria izatea.	1

Puntu banaketa:

2.1. Langileek aisialdiko begirale titulua izatea.	puntu 1 gehienez
Lantalde guztiak aisialdi titulua izanez gero	1
Lantalde erdiak baino bat gehiagok aisialdi titulua izanez gero	0,75
Lantalde erdiak aisialdi titulua izanez gero	0,50
Lantaldeko kide batek aisialdi titulua izanez gero	0,25
Langileek aisialdi titulurik ez izanez gero	0

2.2. Langileek hizkuntza dinamizazio ikastaroak izatea.	puntu 1 gehienez
Ikastaroa/k 15 ordu/urtean baino gehiago izanez gero	1
Ikastaroa/k 10 eta 14 ordu/urtean izanez gero	0,75
Ikastaroa/k 6 eta 9 ordu/urtean izanez gero	0,50
Ikastaroa/k 3 eta 5 ordu/urtean izanez gero	0,25
Ikastarorik ez	0

2.3. Enpresak Bikain ziurtagiria edota Bai Euskarari ziurtagiria izatea.	puntu 1 gehienez
Urrezko Bikain ziurtagiria edota Zerbitzua eta Lana Euskaraz ziurtagiria izanez gero	1
Zilarrezko Bikain ziurtagiria edota Zerbitzua Euskaraz ziurtagiria izanez gero	0,50
Brontzezko Bikain ziurtagiria edota Euskararen Bidean ziurtagiria izanez gero	0,25
Ziurtagiririk ez izanez gero	0

2.- BALIO JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK: gehienez 48 puntu

Proposamen teknikoa: gehienez 48 puntu (B artxibo elektronikoan sartzekoa)

Enpresa lizitatzaileak, kontratatutako zerbitzuaren antolakuntza eta funtzionamendua deskribatzen duen txosten teknikoa aurkeztu beharko dute, ondorengo edukiarekin:

Irizpidea (proposamen teknikoko edukiak)	**48 puntu gehienez**
1. 1. Helburuak eta lan metodologia.	15
1.2. Adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak.	10
1.3. Zerbitzuaren barne antolaketa eta garapena. Lantaldeko ardurak, funtzioak, jarduerak eta lanak.	6
1.4. Koordinazioa, barnekoa (lantaldekoa) eta kanpokoa (gurasoekin, ikastetxeekin eta udaleko Euskara zerbitzuarekin).	6
1.5. Komunikazioa.	5
1.6. Ebaluazioa.	6

Puntu banaketa honako parametroen arabera egingo da:

- Maila eskasa (% 0): azalpen eskematikoa, kontratuaren objektuari dagokionez, haren alderdi nagusiak xehetasunez eman gabe.

- Maila azalekoa (% 25): azalpen eskematikoa, kontratuaren objektuari dagokionez, haren alderdi nagusien xehetasunak azaleko eran emanda.

- Maila zuzena (% 50): azalpen xehea, halakoa irakurri eta aztertuta, kontratuaren objektuari dagokionez, maila zuzena bermatzen dela ondorioztatzeko modukoa, kontratua gauzatzean aplikatuz gero.

- Maila oso ona (% 75): azalpen xehea, halakoa irakurri eta aztertuta, kontratuaren objektuari dagokionez, maila oso ona bermatzen dela ondorioztatzeko modukoa, kontratua gauzatzean aplikatuz gero.

- Maila bikaina (% 100): azalpen xehea, halakoa irakurri eta aztertuta, kontratuaren objektuari dagokionez, maila bikaina eta balio nabarmenekoa bermatzen dela ondorioztatzeko modukoa, kontratua gauzatzean aplikatuz gero.

Aurreko parametroen arabera puntu banaketa honakoa da:

Irizpidea	**% 0**	**% 25**	**% 50**	**% 75**	**%100**
1. 1. Helburuak eta lan metodologia.	0	3,75	7,50	11,25	15

1.2. Adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak.	0	2,50	5	7,50	10
1.3. Zerbitzuaren barne antolaketa eta garapena. Lantaldeko ardurak, funtzioak, jarduerak eta lanak.	0	1,50	3	4,50	6
1.4. Koordinazioa, barnekoa (lantaldekoa) eta kanpokoa (gurasoekin, ikastetxeekin eta udaleko Euskara zerbitzuarekin).	0	1,50	3	4,50	6
1.5. Komunikazioa.	0	1,25	2,5	3,75	5
1.6. Ebaluazioa.	0	1,50	3	4,50	6

Kontratazio jardunbidetik BAZTERTU egingo dira balio-judizioen bidez neurtu daitezkeen esleitze-irizpideen balioespenean gutxienez 24,00 puntura heltzen ez diren proposamenak.

Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzak edo gehiagok puntuazio bera badute, kontratuaren xedeari loturiko irizpideak aplikatuko dira, 2017ko SPKLko 147. artikuluari jarraikiz. Horrelako irizpiderik ez badago, berdinketa irizpide sozial hauek aplikatuz hautsiko da (irizpideak eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren bete behar dituzte enpresek):

- Enpresen langile-taldean desgaitasunak dituzten edo gizarteak baztertuta dauden langileen portzentajea handiagoa izatea. Enpresek portzentaje bera badute, desgaitasuna duten langile finko gehien edo gizarteratzeko hartutako langile gehien dituena gailenduko da.

- Enpresen langile-taldean aldi baterako kontratuen portzentajea txikiagoa izatea.

- Enpresen langile-taldean emakume-portzentajea handiagoa izatea.

- Irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketa ez bada hausten, zozketa egingo da.

Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen denean aurkeztu behar dituzte lizitatzaileek, ez lehenago.

17. DOKUMENTAZIOA ERREKERITZEA

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua egingo dio aginduzko honako agiri hauek aurkezteko gehienez ere 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz:

1.- Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten dokumentuak. Nortasuna honela egiaztatuko da:

a.1. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eratze-eta, hala egokituz gero, aldatze-eskrituraren bidez, Merkataritza Erregistroan izena behar bezala emanda, eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez, aplika dakiokeen merkataritza-legediaren arabera izen-ematea galdagarria bada. Hala izango ez balitz, jarduteko gaitasuna eraketa-eskrituraren, estatutuen edo sorrera-aktaren bidez bermatuko da. Agiri horretan jasota egongo dira haren jarduera arautzen duten arauak, behar balitz, dagokion erregistro ofizialean erregistratuak.

Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu espainiarrak ez badira, lanbide erregistroren batean erregistratuta daudela egiaztatu beharko dute, estatu horretako legediak baldintza hori eskatzen badu.

Atzerriko gainerako enpresariek enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo kontsuletxeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute.

a.2. Lizitatzaileak bere izenean badihardu, nortasun-agiri nazionala edo dagokion estatuko baliokidea aurkeztu beharko du.

2.- Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak: proposamenak ez badu lizitatzaileen izenperik, eskaintza izenpetu duenaren edo izenpetzen dutenen alde luzatutako ahalordea sartu behar da, ahaldunen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eskuetsiarekin batera.

3.- Lizitatzailearen **kaudimen ekonomikoa** egiaztatzen dutenak, **era hauetako gutxienez bide baten bitartez** egiazta daiteke:

a) Urteko negozio bolumena, edota negozioen urteko bolumena, kontratuak hartzen duen eremuan, erabilgarri dauden azken hiru urteetako ekitaldi onenari dagokionean. Urteko gutxieneko bolumena 25.756,00€koa da.

b) Lanbide arriskuengatik kalte-ordainen aseguru bat izatearen frogagiria, agiri honetan eskatzen duten zenbatekoaren berdina edo handiagoa.

c) Ondare garbia, edota aktiboen eta pasiboen arteko ratioa, urteko kontuak onartzeko obligazioa betez azken ekitaldi ekonomikoa ixtean, agiri honetan eskatzen duten zenbatekoaren berdina edo handiagoa.

4.- Kaudimen teknikoa eta profesionala egiaztatzen dituzten agiriak, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko direlarik:

- Azken hiru (3) urteetan egin dituzten antzeko zerbitzuen zerrenda - **bereziki, euskalduntze eta hezkuntza prozesuetan, eta bereziki, zerbitzua jaso beharreko neska-mutilen adineko euskalduntze eta hezkuntza prozesuetan emandakoak -**, eta hor sartuko dira zenbatekoa, egunak eta horien onuradun publiko nahiz pribatuak, garrantzitsuenetan exekuzio onaren ziurtagiriarekin batera**.**

- Enpresariaren eta enpresa zuzendaritza kideen eta titulazioa akademiko eta profesionalak, eta zehazki, kontratua egikarituko duten arduradunen pertsonena.

- Kontratua exekutatzeko erabiliko diren baliabide pertsonalei eta materialei buruzko zerrenda, kontratistarekin duen lan-harremana egiaztatuko delarik.

SPKLren 90.4 artikuluak xedaturikoa aintzat hartuta, kontratista sortze berriko enpresa denean, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna dutenak, horren kaudimen teknikoa bigarren eta hirugarren ataletan eta jarraian zehazten diren paragrafoetan xedaturiko bideen bidez egiaztatuko da, inongo kasutan ez zaio izango aplikagarria lehenengo atalean ezarririkoa, zerbitzu kopuru zehatz baten egikaritzearen ingurukoa.

Zehazki, kontratuaren xedea gauzatuko duten pertsonek honako titulazioak egiaztatu beharko dituzte agiri ofizial bidez:

- **Zerbitzua emango duten langileek Gizarte Hezkuntzako Gradua izan beharko dute edo Heziketaren zein Gizarte Zientzien arloan erdi zein goi mailako beste titulua (Pedagogia, Psikologia, Psikopedagogia, Irakasle-ikasketak, Gizarte Langilea ...).**

- **Euskara mailari dagokionean, Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 gaitasun maila (3. HE edo baliokidea).**

Baldintza hauek kontratuzko betebeharren izaera edukiko dute, horregatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 76.2 artikuluak xedaturikoari jarraiki, baldintza hori ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoitzat hartu ahal izango da, 211. artikuluan ezarritako eraginetarako.

5.- Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

6.- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzea, alta aurkeztuz, indarrean den ekitaldiari badagokio, edota Jardueren gaineko Zergaren azken ordainagiria, gainerakoetan; eta bi egoeratako edozeinetan, aipatutako zergaren matrikulan baja eskatu ez izanaren erantzukizunpeko aitorpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda duten lizitatzaileek erregistroaren ardura duen letratuak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, indarrean dagoelako adierazpenarekin batera, 1.-, 2.-, 5.- eta 6.- ataletan eskatutako dokumentazioaren ordez, eta bere kasuan, sailkapenarena, betiere dokumentazioan inolako aldaketarik ez bada eman, eta hori eman bada zirkunstantzia hori jasota utzi beharko da ardurapeko aitorpen baten bidez.

Estatuko Lizitatzaileen Erregistro Ofizialean eta Enpresa Sailkatuen Erregistroaren inskripzioari dagozkion ziurtagiriak, 2017ko SPKLren 96. Artikuluak xedaturiko ondorioak izango ditu.

Jatorrizko dokumentuak aurkeztu ahal izango dira, edo haien kopiak, benetakoak badira indarreko legediaren arabera.

b) Plegu honetako 8. baldintzan adierazitako behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria.

c) Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza harpidetuta daukala egiaztatzen duen dokumentazioa, 150.000€-ko estaldura ekonomikoarekin eta poliza hori ordainduta izatearen ziurtagiriarekin.

d) Kontratazio-organoak hala eskatuz gero, SPKL-ren 76.2 artikuluaren arabera, kontratua egikaritzean jarriko dituen bitartekoak badituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da; kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren %3ari dagokion zenbatekoa (BEZa kanpo) eskatuko zaio zehapen modura. Kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberako hurrengo lizitatzaileari.

18.KONTRATUAREN ESLEIPENA

Kontratazio-organoak, dagozkion txosten teknikoak aztertu ondoren, proposamenak irekitzen diren hurrengo egunetik zenbatzen hasita – lehenengo irekieratik -, gehienez ere bi (2) hilabeteko epean, kontratuaren esleipena egingo du. Esleipena epe horretan egin ezean, enpresariak eskubidea du bere proposamena erretiratzeko eta jarritako bermea itzul dakion.

Esleipenaren erabaki arrazoitua, kontratazio-organoak emango du, bost (5) laneguneko epean, dokumentazioa jasotzen denetik. Gainera erabaki hori lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta kontratugilearen profilean (www.azkoitia.eus) argitaratuko da hamabost (15)

eguneko epean. Lizitatzaileei eman beharreko informazioari dagokionez, SPKL-ren 151 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Aurkeztutako proposamenak, onartuak nahiz ireki gabe baztertuak edo ireki ondoren atzera botatakoak, espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu eta errekurtsoak jartzeko epea errekurtsorik jarri gabe amaitzen denean, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesatuen eskura geratuko da.

19.KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidali ondorengo hamabost egun baliodun baino lehenago ez.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren, eta kontratuaren formalizazioa etetea eragiten duen errekurtsorik aurkeztu ez bada, kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio esleipendunari, kontratu formalizatu dezan, bost eguneko epea baino luzeagoan ez, errekerimendua jaso duen hurrengo egunetik zenbatuta. Era berean jokatuko da, errekurtsoa erabakitzeko organo eskudunak etendura kentzen duenean.

Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara jotzeko. Hala ere, kontratistak kontratu eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

Formalizatu ondoren osatzen da kontratua.

Zerbitzuak Aldi Baterako Enpresen Elkarte bati esleitzen baldin bazaio, horrek eraketa egiaztatu beharko du, eskritura publikoan, kontratua gauzatzeko emandako epean, eta Elkarte horri izendatutako IFZ emanez.

Kontratuaren formalizazioa, Azkoitiko udaleko kontratugilearen profilean (www.azkoitia.eus) argitaratuko da, behin kontratua perfekzionatzen den egunetik gehienez hamabost eguneko epean.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da, SPKLko 197. artikuluaren arabera.

Kontratua bere baldintzetan eta administrazio-baldintzen nahiz baldintza teknikoen

pleguetan adierazitakoa kontuan hartuta gauzatuko da, bai eta kontratazio-organoak kontratistari haien interpretaziorako zuzenean edo kontratuaren arduradunaren bitartez emandako azalpenak kontuan hartuta ere.

Kontratistari edo haren mende dauden pertsonei egotzi dakizkien egintzengatik edo omisioengatik, arriskuan jartzen denean kontratua ondo bidean joatea, Udalak exijitu ahalko du beharrezko neurriak hartzera, kontratua betetzean ordena ona lortu edo berraztertzeko.

Udalaren ardura izango da lana ondo egiten dela zaintzea, zuzentzea, egiaztatzea eta koordinatzea. Horretarako, erakunde horrek kontratuaren arduraduna hautatuko du langileen artean.

Kontratua gauzatzen hasi baino lehen, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua garatzen duen 171/2004 Errege Dekretuak xedaturikoa betetzearren, kontratu horren xedeko lanerako arriskuen ebaluaketa eta prebentziozko jardueraren planifikazioa egina dutela egiaztatu beharko dute.

21. KONTRATUA BURUTZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1. Kontratua betetzeko baldintza bereziak lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunarenean:

Enpresa kontratugileak bete egin behar ditu indarrean dauden legezko, araudizko eta hitzarmenezko xedapen guztiak, betiere, lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatzekoak badira. Kontratuaren iraunaldi osoan, esleipendunak egunean eduki behar ditu bere langileekiko soldata obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Hauek izango dira ez-betetze arinak:

a) Langileari idatziz ez jakinaraztea kontratuaren funtsezko osagaiak eta lan-prestazioa betetzeko baldintza nagusiak, dagokion araudiak ezarritako moduan eta epeetan.

b) Lan-istripuen eta deklaratutako laneko gaixotasunen berri ez ematea lan agintaritza eskudunari garaiz eta dagokion moduan, istripu edo gaixotasun horiek arintzat jotzen direnean.

c) Aldi baterako ezintasunen bajaren, baja berrespenaren edo altaren agiri medikuen kopiak ez bidaltzea dagokion entitateari.

d) Betebehar formal soilei edo dokumentalei eragiten dizkieten gainerako ez-betetzeak.

Ez-betetze larriak:

a) Lan-kontratua idatziz ez formalizatzea, betekizun hori legez bete beharrekoa denean edo langileak eskatu duenean.

b) Kontratu-motei, iraunaldi zehatzeko kontratuei eta aldi baterako kontratuei buruzko araudia urratzea, kontratu-mota ezberdinak lege-iruzurrez erabilita.

c) Lanaldi, gaueko lan, aparteko ordu, ordu osagarri, atsedenaldi, opor eta baimenei buruzko arauak eta legezko nahiz hitzartutako mugak ez betetzea.

d) Enpresak bere kasa ezarritako funtsezko lan- baldintzak aldatzea, legez ezarritako prozeduretara jotzeke.

e) Legez edo hitzarmen kolektiboz ezarritako lan baldintzak baino txarragoak ezartzea, eta era berean, langileen Estatutuaren 4. artikuluak langileei aitortzen dizkien eskubideen kontrako ekintzak nahiz ez-egiteak burutzea, oso larritzat ez badira sailkatzen.

f) Laneko segurtasun eta osasun-plana ez egitea lan arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako edukiarekin eta irismenarekin.

g) Laneko segurtasun eta osasun-planaren jarraipena egiteko betebeharra ez betetzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako irismenarekin eta edukiarekin.

h) Indarrean dagoen araudiaren araberako azterketa medikuak eta langileen osasun egoera aztertzeko aldizkako zainketa probak ez egitea, edo haien emaitzen berri dagokien langileei ez ematea.

i) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, ez-betetzea oso larritzat jotzen denean izan ezik.

j) Lan istripuen eta deklaratutako lanbide gaixotasunen berri garaiz eta forma egokian ez ematea lan-agintaritzari, indarrean dauden xedapenen arabera, istripu edo gaixotasun horiek larri, oso larri edo hilgarri kalifikazioa dutenean, edo ikerketarik ez burutzea langileen osasunari kaltea eragin zaionean edo prebentzio-neurriak nahikoak ez direla susmatzeko zantzuak daudenean.

k) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia ez betetzea, ez-betetzea arintzat edo oso larritzat jo denean izanik ezik.

l) Lantokiaren edo langunearen garbitasun eza, ohikoa denean edo langileen osotasun fisikorako eta osasunerako arriskua dakarrenean.

m) Langile berrien hasierako afiliazioa edo alta ez eskatzea, edo epez kanpo eskatzea, ikuskapen-jarduera baten ondorioz. Ondorio horietarako, kasu horretan dagoen langile bakoitzeko ezbetetze bat eman dela ulertuko da.

n) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak dagokion moduan eta epeetan ez ordaintzea, edo dagokion diru sarrera behar den zenbatekoan ez egitea, kotizazio-agiriak aurkeztuta, betiere, diru sarrera ez egitearen arrazoia enpresaren konkurtso-deklarazioa ez bada, edo ezinbesteko kasua, edo ez bada eskatu kuotak ordaintzeko epearen atzerapena inspekzio-jarduna hasi aurretik, ezezko ebazpenik ez bada eman.

o) Hirugarren ez-betetze arina.

Ez-betetze oso larriak:

a) Langileari zor zaion soldata ez ordaintzea edo ordainketa behin eta berriro atzeratzea.

b) Enpresak bere kasa hartzen dituen eta diskriminazio zuzena nahiz zeharkakoa eragiten duten erabakiak: adina edo desgaitasuna dela-eta aldeko eta aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; ordainsari, lanaldi, prestakuntza eta gainerako lan-baldintzak direla-eta aldeko edo aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; eta jatorria, arraza edo etnia barne, egoera zibila, gizarte maila, erlijio edo sinesmenak, ideia politikoak, sexu joera, sindikatuei eta sindikatuen erabakiei atxikitzea edo ez atxikitzea, enpresako beste langile batzuekin ahaidetasun-lotura izatea edo hizkuntza dela-eta diskriminazioa eragiten dutenak.

c) Enpresak bere kasa hartzen dituen erabakiak, langileei kalte eginez, baldin eta erabaki horiek tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa bete dadin galdatzeko enpresan egindako erreklamazio baten aurrean edo administrazio-egintza zein egintza judizial baten aurrean erreakzioz hartuak badira.

d) Enpresak langileekin pentsioak direla-eta hartutako konpromisoak ez betetzea pentsio-planak eta pentsio-funtsak arautzen dituen araudian ezarritako moduan.

e) Lan-arriskuen prebentziorako araudia bete gabe egiten diren lanak berehala ez geldiaraztea edo geldieran ez uztea, Lan eta Gizarte Segurantzako ikuskatzailetzak errekerimendua egin duenean, eta lan horiek, ikuskatzailetzaren iritziz, langileen segurtasunerako eta osasunerako gertu gertuko arrisku larria dakartenean berekin, edo lanei berriz ekitea geldiarazteko arrazoiak aurrez zuzendu gabe.

f) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, bai eta langile horiek laneko segurtasun eta osasunaren alorrean dituzten

lanbide-gaitasunak kontuan izan gabe lanean jardutea, egoera horiek langileen segurtasunerako eta osasunerako gertu-gertuko arrisku larria eragiten dutenean.

g) Prebentzio-baliabideen presentzia eza, hori nahitaezkoa denean, edo haien presentziak dakartzan betebeharrak ez betetzea, dagokion araudian arriskutsutzat edo arrisku berezikotzat jotako jarduerak direnean.

h) Honako alderdi hauek ez egiaztatzea legez edo arauz ezarritako eran: enpresa azpikontratatuek zuzendaritzan nahiz produkzioan lan-arriskuen prebentzioko prestakuntza duten langileak badituztela, prebentzio-antolamendu egokia badutela, eta dagokion erregistroan inskribatuta daudela.

i) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzean lan-baldintzei aplika dakiekeen beste edozein neurri hartu ez izana, baldin eta horien ondorioz langileen segurtasunerako eta osasunerako arrisku gertu-gertukoa eta larria eragiten bada.

j) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak ordaindu ez izana, dagokion epean eta araudiak ezarritako moduan, kotizazio-agiriak aurkezteke.

k) Kotizazio-agirietan edo bestelako agirietan datu faltsuak edo okerrak deklaratzea edo agerraraztea iruzur eginez, betiere kuotetan eragina badute.

l) Lana ematea kontratuak etenda edo lanaldia murriztuta duten langileei, kontratuak eteteko neurriak aplikatzeko aldian, edo lan-agintaritzari edo, hala bada kasua, langabezia prestazioak kudeatzen dituen entitateari jakinarazitako lanaldi murriztuko ordutegitik kanpo.

m) Langileei deskontatutako Gizarte Segurantzako kuota zatia epean ez ordaintzea eta harekin geratzea, edo legez dagokiona baino deskontu handiagoa egitea.

n) Larritzat sailkatutako exekuzio-baldintza berezien ez-betetzeak 15 laneguneko epean ez zuzentzea.

o) Hirugarren ez-betetze larriak.

Ez-betetzeek honako isun edo zehapen ekonomiko hauek ezartzea dakarte:

a) Arintzat sailkatutako ez-betetzeei 200 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 0,1 (BEZik gabe), bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen dena aurrena baino handiagoa bada.

b) Larritzat sailkatutako ez-betetzeei 1.000 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren

adjudikazio-zenbatekoaren % 1 (BEZik gabe), bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada.

c) Oso Larritzat sailkatutako ez-betetzeei 5.000 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 3 (BEZik gabe), bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada.

2. Hizkuntza-baldintza bereziak:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte. Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontratua euskaraz gauzatzea eskatzen dute; izan ere, Azkoitian D eredua baino ez dago Oinarrizko Hezkuntzan eta euskarazko errefortzua jasoko duten ikasleak maila horietakoak izango dira. Bestalde, kontratua gauzatzeko enpresa esleipendunak aurez-aurre, e-postaz zein telefonoz ohiko harremanak izango ditu euskaraz gaitutako herriko eskoletako eta udaleko ordezkariekin.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Horretarako zerbitzua emango duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak euskaraz egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuzko interfazeak barne.

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira.

Jarraipena. Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, Euskara Zerbitzuari horren berri emango diolarik. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

SPKLko 62. eta 210. artikuluekin bat etorriz:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren ziurtatzeko jarraipena egingo du, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

- Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratuaren arduradunak, jarraipen espezifikorako euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Ez-betetzeei 200 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 0,1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada. Gainera, ez-betetzea ez bada zuzendu 15 laneguneko epean, atzera ere 1.000 euroko isuna ezarriko da edo kontratuaren adjudikazio zenbatekoaren % 1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada. Beste 15 laneguneko epea eman eta horrela ere ez-betetzea ez bada zuzentzen, oinarrizko betebehar bat ez-betetzat joko da.

3. Lan-baldintzak ez kaltetzeko baldintza bereziak:

Kontratua betetzeko aldi osoan zehar, enpresa kontratistak obligazioa du, eskaintza aurkezteko unean aplikatu daitekeen lan-hitzarmenaren arabera, edo hala balitz kasua, lan-hitzarmena hobetzeko enpresaren eta langileen artean izenpetutako itunen arabera, egindako kontratuari atxikitako beharginei une bakoitzean dagozkien lan-baldintzak (lanaldia, soldata eta urtekoan egokitutakoak) bere kabuz eta aldebakartasunez ez murrizteko. Salbuespen bakarra enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordio espliziturен bat izatea izango litzateke.

Kontratua betetzeko baldintza berezi hori beteko ez balitz, zehapena ezarriko da, eta honela kalkulatuko da zehapen horren zenbatekoa:

Kontratuari atxiki zaizkion beharginen lan hitzarmenak duen orduko/soldata hori murriztu edo kendu zaionaren portzentaje hori berbera kontratuaren aurrekontuari aplikatuta, muga % 10 izanik. Orduko/soldata murrizketa % 10etik gorakoa balitz kontratuaren funtsezko obligazio bat ez betetzat joko litzateke eta kontratua deuseztatzeko arrazoietako bat izango litzateke.

e) Prozedura

Enpresa kontratatzaile batek urraketaren bat egin duelako susmoa badago, eta hori frogatzeko Laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzailetzaren (LGSI) esku-hartzea behar bada, laneko arau-hausterik dagoen ikusteko, kontratuaren zuzendariak aurretik proposatuta, kontratazio-organoak egoeraren berri emango dio LGSIri.

Urraketa egon dela bi modutan berretsi ahal izango da, LGSIk ikuskaritza egin eta laneko zehapena ezarrita edo epai judizial bat emanda, horietako edozeinek behin irmotasuna lortu ondoren.

Gainerako urraketen kasuetan, Laneko eta gizarte segurantzako ikuskatzailetzaren egiaztapenik behar ez denetan, kontratuaren zuzendariak eskatu beharko du espedientea zabaltzea.
Edozein kasutan ere, espedientearen ebazpena eman aurretik, entzun egingo zaio enpresa kontratistari.

Zehapenei dagokienez, kontratistari egin behar zaizkion ordainketa zatikatuetatik edo osotik egoki den kopurua kendu egingo da.

Gainera, atal honetan azaltzen diren betebeharrak asetzeko egin beharreko gastuak esleipendunaren kontura izango dira eta sartuta egongo dira kontratua gauzatzeko eskainitako prezioan.

22. KONTRATUAREN BETETZE AKASTUNA

Betetze akastuna

Kontratuaren betetze akastuntzat joko da:

a) Kontratistak ez aurkeztea orri honetan ezarritako baldintza bereziak betetzeari buruz eskatzean zaion informazio oro.

Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 5 lanegunekoa izango da, horretarako egingo den errekerimendua kontratistak jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Eskatutako dokumentazioa ez bada errekerimenduan eskatutako moduan aurkezten, 1.000 €-ko isun bat jarriko da edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 1 (BEZik gabe), bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen dena aurrena baino handiagoa bada.

Bigarren errekerimendu bat egin eta orduan ere ez baditu ematen eskatutako datuak, funtsezko obligazio bat ez-betetzat hartuko da.

b) Zerbitzua egiteko betekizun teknikoak ez betetzea kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, betiere kontratua deuseztatzeko arrazoi ez badira.

Arau orokor gisa, zehapenen zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren % 1ekoa izango da, salbu eta kontratazio-organoak, arrazoituta, ez-betetze hori larria edo oso larria dela irizten badio. Kasu horretan, hurrenez hurren, aurrekontuaren % 5erainokoa edo % 10erainokoa izan daitezke zehapenak. Ez-betetzeak behin baino gehiagotan egitea

kontuan hartu ahalko da larritasuna balioesteko orduan.

23. FUNTSEZKO OBLIGAZIOAK

Funtsezko obligaziotzat hartuko da:

a) Oso larritzat sailkatutako exekuzio baldintza berezien ez-betetzeak 15 laneguneko epean ez zuzentzea edo bideratzea.

b) Baldintza-orrietan horrela jotzen diren beste guztiak.

24. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratista, egiten dituen lanen eta emandako prestazioen nahiz zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea izango da, bai eta kontratua gauzatzean egin ez direnek, izandako hutsegiteek, erabilitako metodo desegokiek eta ateratako ondorio okerrek Administrazioarentzat edo hirugarrenentzat izan ditzaketen ondorioena ere. Inolako erantzukizunik izan ez dezan, ezinbestekoa izango da ikusten diren akatsak Administrazioaren agindu baten ondorio zuzena izatea, edo hark jarritako baldintzena.

Alde horretatik, kontratistak betebehar hauek izango ditu:

1. Kontratistak baldintza tekniko eta administratiboetan ezarritako garaian, orduetan eta tokietan egin beharko ditu kontratuan ezarritako lanak, eta Administrazioak kontratua interpretatzeko kontratistari emango dizkion argibideei jarraiki. Horretaz gain, Administrazioaren berariazko baimenik izan gabe, ezin izango dio kontratu osoa edo kontratuaren zati bat beste pertsona bati laga.

2. Indarreko xedapenak betetzea, bai lan-arlokoak, bai gizarte-segurantzari dagozkionak, bai laneko segurtasun eta zerga alorreko xedapenak ere bai; izan ere, kontratuak iraun bitartean, betetze hori agiri bidez egiaztatzeko eskatu ahal izango da edozein unetan.

3. Kontratistak berehala jakinarazi beharko dizkio Administrazioari kontratatutako zerbitzuak ematean gertatzen diren gorabehera guztiak.

4. Enpresa esleipenduna izango da erabiltzaileek jasandako kalteen erantzulea, baldin eta bere langileen erruagatik gertatu badira, edo zerbitzuan izandako irregularitasunen edo gabezien ondorio badira.

5. Zerbitzurako kontratatzen dituen langileek ez dute inolako harremanik izango Administrazioarekin, eta kontratatzaileak kontratatzen dituen langileak inola ere ez dira Administrazioaren lanpostuen zerrendako langile bihurtuko.

6. Esleipendunak edo haren agindupeko norbaitek zerbait egiteagatik edo ez egiteagatik kontratuaren martxa egokia eragozten edo arriskuan jartzen badu, Udalak eskatu ahal izango dio neurri zehatz eta eraginkorrak hartzeko, kontratatutakoa betetzean gauzak bere onera itzul daitezen.

7. Esleipenduna behartuta dago betetzea indarrean dauden Lan Legedia, Gizarte Segurantza eta sektoreko Hitzarmen Kolektiboen alorreko xedapenak, eta, baita 31/1995 Legean (Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea) eta lege hori garatzen duten errege-dekretuetan jasotako guztia. Horrenbestez, udal-korporazioak eta lanen Zuzendaritzak ez dute inolako ardurarik izango xedapen horiek ez betetzetik etor litezkeen erantzukizunetan.

8. Beharrezkotzat jotzen diren lan edo informazio bilera guztietara joan beharko du. Horren ondorioz, ez du ordainketa osagarririk jasotzeko eskubiderik izango, zerbitzuaren ordutegian ere ez du eraginik izango.

9. Kontratua betetzen hasi aurretik, Udaleko zerbitzu teknikoek zerbitzuak eskaintzeko erabiliko diren lokalak ikuskatuko dituzte, eta esleipendunak lokalean dauden materialen eta altzarien inbentarioa egin beharko du. Akta egingo da, bi aletan, Aktaren ale bat kontratuaren espedientean jasota gelditukо da, eta bestea esleipendunari emango zaio.

10. Erakunde esleipendunak etengabeko prestakuntza izatea eskatuko die langileei, erakunde publikoek edo pribatuek antolatuko dituzten birziklatzeko ikastaroetara edo formazio-ikastaroetara joanez.

11. Erakunde esleipendunak Udalek emandako jarraibideak errespetatu behar ditu.

12. Kontratistak kanpo komunikazioan irudi eta hizkera ez-sexistak erabiltzeko betebeharra izango du.

13. Kontratistak bere jardueretan bultzatuko dituen balioek berdintasuna, aniztasuna, erantzukidetasuna etab-etan oinarritu beharko dute.

25. KONTRATUA BURUTZEN ARI DELA HIRUGARRENEI SORTUTAKO KALTEETAN KONTRATATZAILEAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratua betetzean egin beharreko operazioen ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea kontratista izango da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 196. artikuluan xedaturikoaren arabera.

26. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratatutako zerbitzuei buruz enpresa esleipendunak jakin dakizkien datu guztiak dira konfidentzialak, eta gorde beharko dira horien izenak eta sekretua. Esleipendunak kalte-ordaina eman beharko dio udalari, eta kalte-ordaina eman beharko die isiltasun profesionalaren betebeharra urratzeagatik kalte eta galerak izan dituzten pertsonei.

Esleipendunak erabiltzen badu datu pertsonalik beharrezkoa denean kontratua betetzeko, erabiliko ditu kontuan hartuta zer xedatzen den Europar Batasunaren eta Kontseiluaren, 2016ko apirilaren 27koa, 2016/678 Erregelamenduan, pertsona fisikoak babesteari buruz, datu pertsonalen trataerari dagokionez eta datu horiek libre zirkulatzeari dagokionez, eta kontuan hartuta hura garatzen duen araudia.

Enpresa esleipendunak ezingo ditu aplikatu edo erabili datu pertsonalak, lortzen baditu kontratua dela-eta hor agertzen den helburua ez den beste helburu baterako, eta ezingo dizkie laga beste pertsona batzuei, ezta zaintzeko ere.

Kontratu prestazioa bete eta gero, datu pertsonal tratatuak udalari eman beharko zaizkio.

27. KONTRATUA ALDATZEA

Udalak herri intereseko arrazoiengatik kontratua aldatu ahal izango du, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Liburuaren I. Tituluko I. Kapituluko 3. Sekzioko 4. Azpisekzioan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudiaren 158tik 162rarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera.

a) <u>Pleguetan aurreikusitako aldaketak (SPKLren 204. artikulua)</u>

Kontratu honetan ez da aurreikusten.

b) <u>Pleguetan aurreikusi ez diren aldaketak (SPKLren 205. artikulua)</u>

Pleguetan aurreikusi gabeko aldaketak soilik egin ahal izango dira, delako aldaketak SPKLaren 205.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituenean eta baita aurreikusi gabeko aldaketa bat justifikatzen duten balizkoak Legearen 205.2 artikuluan aurreikusitakoak direnean ere.

Kontratazio organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat, banaka edo batera, kontratuaren azken prezioak zenbatekoan % 20a gainditzen ez duen aldaketa bat eragiten dutenean, BEZ barne.

Aurreko paragrafoan aipatutakoaren arabera, kontratistarentzat aldaketa nahitaezkoa ez denean, aldaketa hori kontratazio organoak baino ez du erabakiko, aurrez beraren adostasun

idatzia emanda, gainerakoan kontratuaren ebazpena SPKLaren 211 artikuluaren 1. atalean g) hizkian ezarritakoari jarraituz.

Kontratuaren aldaketak 153. artikuluan ezarritakoari jarraituz formalizatuko dira eta SPKLaren 207 eta 63 artikuluei jarraituz argitaratuak izan beharko dute.

28. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren xede den prestazioa eman eta gehienez hilabeteko epean, zerbitzuaren harrera formala egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 210. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, hilabeteko epea ezarri da, harrera formala egiten den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Lege horren Araudi Orokorrean jasota datozen ondorioetarako.

Berme epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats edo ikusiezinezko akats guztiak.

Administrazioak inongo eragozpenik jarri gabe epea igarotzen bada, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

29. KONTRATUA EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ZIGORRAK

A) KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua egikaritzerakoan atzerapen edo berandutzea izango balu bai kontratua osorik betetzeko, bai, balegokio, zatiak betetzeko epeetan, Administrazioak bi aukera izango ditu: edo kontratua suntsiaraztea, bermea galaraziz, edo eguneroko zigorrak jartzea, kontratuaren zenbatekoaren 1.000 euroko zati bakoitzeko 0,60ko proportzioan, BEZa kanpo.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren ehuneko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, Kontratazio Organoak ahalmena izango du kontratua amaitutzat emateko edo hura egiten aurrera jotzeko baina zigor berriak gehituz.

B) ZERBITZUEN EGIKARITZE PARTZIALA.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztuak dauden zerbitzuen zatikako egikaritzea beteko ez balu, Administrazioak bi aukera izango ditu: edo kontratua suntsiaraztea edota kontratuaren zenbateko osoaren %10ari dagokion zigorra jartzea.

Prestazioa oker gauzatzen bada, Administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren %50.

Zigor horiek kontratistari, kontratuaren prezio gisa, hilero eman beharreko diru kopurutik kobratuko dira, edo beharrezkoa balitz, hark eratutako bermetik.

Kontratua bertan behera uzteko erabakiko balitz, ezarritako zigorrek ez dute kalte eta galeren ordainketa ordeztuko, eta ordainketa hori aparte eskatzeko aukera izango da.

30. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren izaera dela-eta, enpresa kontratistak zuzenean exekutatu beharko du kontratua, eta ezingo du zerbitzua azpikontratatu.

31. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak dira.

Kontratuaren suntsiarazpenaren ondorioei dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 213. eta 313. artikuluek xedaturikoa aplikatuko da.

Kontratua, kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik amaituko balitz, hari, behin betiko bermea bahituko zaio; Administrazioari egindako kalte-galerak bahitu den bermearen kopuru horretatik gorakoak balira, hortik letozkiokeen kalte-ordainen kalterik gabe.

32. KONFIDENTZIALTASUNA

2017ko SPKLren 133. artikuluaren arabera, Azkoitiko udalak ez du zabalduko lizitatzaileek emandako informaziorik, baldin eta haien eskaintza aurkeztean konfidentzialtzat jo badute.

Konfidentzialtasun-izaerak eragiten die, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta gainerako beste edozein informaziori, baldin eta eduki hori lehia faltsutzeko erabaki ahal bada, izan lizitazio-prozedura honetan izan hurrengo beste batzuetan.

Kontratazio-organoaren konfidentzialtasunaren betebeharra, eta haren mendean dauden zerbitzuena, ezingo da zabaldu esleipendunaren eskaintzaren eduki osora.

Konfidentzialtasunaren betebeharrak, halaber, ezingo du eragotzi egindako kontratuen zati ez konfidentzialak publikoki argitaratzea, betiere Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa errespetatuz.

Kontratistak aintzat hartu behar du, baldintza-orrietan edo kontratuan, konfidentzialtasun izaera eman zaion kontratu hori burutzerakoan eskuragarri daukan informazioaren isilpeko izaera, edota bere izaeraz halaxe erabili behar dena. Isilpean edukitzeko betebehar hori, informazio horren ezaguera edukitzen denetik bost urteko epean mantenduko da.

33. UDALAREN ESKUMENAK

Udalari dagokio administrazio-kontratua interpretatzeko eskubidea, kontratuaren betearazpenak sor ditzakeen zalantzak argitzea, interes publikoa dela bide kontratua aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotzitako erantzukizuna aitortzea, kontratuaren exekuzioa etetea, amaitutzat ematea eta amaitze horren eraginak zehaztea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritako eskakizun eta ondorioetara loturik.

IV. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

34. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu hau zerbitzuen kontratu bat da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio izaera duena eta ondokoek xedatutakoari jarraituko zaio:

- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea.
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen Arautegi Orokorra onesten duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak xedatutakoarekin kontraesanean ez datorren guztian.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- Toki Araubideko gaiei dagozkien eta indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatutakoarekin kontraesanean ez datorren guztian.
- Osagarri gisa zuzenbide administratiboko gainontzeko arauei jarraituko zaie eta,

horrelakorik ez balego, zuzenbide pribatukoei.
- Preskripzio Teknikoen Orria.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan gainerako dokumentazioaren artean kontraesanik sortuz gero, Agiri honetan xedatutakoa beteko da.

35. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren esanetara egongo dira. Nolanahi ere, bi aldeek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehazturikoarekin bat etorriz.

Hala ere, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik, Kontratazioari buruzko Errekurtso berezia jar daiteke, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44.2 artikuluak xedatzen dituen erabakien aurka, aipatu Legearen ondorengo artikuluetan adierazitako terminoetan, baldintzetan eta epeetan.

Errekurtsoaren erabakiaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legean xedaturikoaren arabera.

Kontratazio arloko A.O.T.k

EGINBIDEA.- Azkoitiko udaleko Alkate-Udalburuak 2023ko martxoaren 23an emandako Dekretu bidez onartu du baldintza orri hau.

IDAZKARIAK,